

Bilbon, 2010eko otsailaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Kintana, Xabier, idazkaria
Lizundia, Jose Luis, diruzaina
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua
Aleman, Sagrario
Arejita, Adolfo
Azkarate, Miren
Davant, Jean-Louis
Goenaga, Patxi
Haritschelhar, Jean
Larre, Emile
Oñederra, Miren Lourdes
Peillen, Txomin
Salaberri, Patxi
Sarasola, Ibon
Toledo, Ana
Torrealdai, Joan Mari
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, Alfontso Mujika aholkularia, Iñaki Kareaga informatikaria eta Jon Artza argitalpenen banaketa arduraduna, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: P. Salaburuk, ahala P. Goenagari; B. Oihartzabalek, ahala X. Videgaini; J. M. Torrealdai, egon ez den bitarterako ahala A. Sagarnari; M. Zalbidek, ahala Andres Urrutiari; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

1. Hasierakoak. Euskaltzainburuak bilduak agurtu ondoren, eguneko aztergaien ordena zehaztu du.

1.1. Eguneko programaz. A. Urrutiak azaldu duenez, Euskaltzaindiaren batzar-eguneko aztergaien programak 12,30ak arte iraunen du, horren ondoren, ohorezko euskaltzainei diploma ematearen ekitaldi publikoa egiteko.

1.2. B. Oihartzabali zorionak. Euskaltzainburuak Beñat Oihartzabali zorionak eman dizkio, Baionako Fakultate

teko IKER-ek, iragarritakoaren arabera, martxoaren 5an, arratsaldeko 4etan omenaldi bat egingen diolako.

2. Urtarrileko aktak onartzea. Urtarrileko ageriko batzarraren aktari dagokionez, Andres Iñigok ohar pare bat egin du Santiago Ezkerraren jaiotza- eta heriotzadatez. Horiek zuzendurik, akta biak, osoko batzarrarena eta agerikoarena, ontzat eman dira.

3. Exonomastika. «Europako lurmuturrak eta penintsulak» onartzea. Exonomastika batzordeak euskaltzainengandik jasoriko oharrak aztertu ondoren, horien berri A. Mujikak eman du. Lehenengo eta behin, P. Goenagak, M. Zalbidetik eta J. Haritschelharrek eginiko oharrei buruzko kontsiderazioak egin eta hiru euskaltzain horiek aipaturiko arrazoiak balioetsi ditu, eta inoiz sor litezkeen eragozpenak azaldu. Hor oinarriturik, eta ohargileei kasu eginez, euskaraz geografia-izen horiek esateko era bat baino gehiago dagoen arren, batasunagatik eta modu arautuan eskaintzeagatik, zerrenda berrian, posible eta nahasterik sortzen ez denean, guztiak forma berean jarriko dira. Kasu batzuetan, ordea, ohiko izen propioaren ondoan, parentesi karratuen artean, berorri dagokion izen generikoa ere erakutsiko da, horrela, osorik idatzi nahi denean, erabiltzekoa.

Tx. Peillenen oharra ere kontuan hartu da, eta, Euskaltzaindiaren 156. arauak (*Alfabeto zivilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak*) xedatzen duenaren arabera, errusieraz Дежнёв idazten den lurmuturraren izena euskaraz *Dezhniöv* grafiaz idaztea erabaki da, salbuespenik ez egiteko..

Bestalde, A. Arkotxak 'lurmutur' balioarekin *buru* hitza ere erabiltzea zilegi izatea eskatu du. Exonomastika batzordeak uste du hizkera arruntean 'lurmutur' adieran *buru* hitza ere erabil daitekeela, eta halaxe egin zuen jada XVII. mendean Piarres Etxeberrik bere *Itsasoko Nabigazioneko liburuan*. Halere, aspaldiko usadio orokorraren arabera, argi dago adiera berezitu horretan gaur egun *lurmutur* berbak hartu duela erabateko nagusigoa.

4. Lexikoaren Behatokia egitasmoari buruzko azalpena. A. Sagarnak aurkeztu du. Egitasmoaren lehen emaitza ukigarria erakutsiz, orain arte egindakoaren jarraipena, eta komunikabideetatik bildutako datuak eman ditu A. Sagarnak, hots, 2007ren amaieratik gaurdaino jasorikoak: BERRIA, EiTB (4 milioi bat testu-hitz). Ondoren, bilatzeko prozedura azaldu du, lema batetik hasita. Etsenplu moduan hitz konkretu bat (*irakurgailu*) aurkitzeko modua erakutsi digu. Ondoa, berori abiapuntu hartuta, hitz elkartuak ere nola lortu azaldu du. Lema osoaren ordeztan, halaber, galde egin daitezke, adibidez, *-gailu* atzizkiarekin sortuak, beren testuingu-

ru eta maiztasunarekin, bai eta bestelako adibide korapilatuagoak ere. Prozesatze-lanari buruz, eduki hornitzaileak (BERRIA-tik hartuak adibidez), UZEIn ikusi, katalogatu eta etiketatu egiten dira. Ondoren, prozesu linguistiko batzuk ELHUYAR-en eta beste batzuk IXA-n burutzen dira, azken emaitzak lortu arte.

5. «BBK-Euskaltzaindia literatura ataria»ren aurkezpena. Jon Artzak aurkeztu du, horrekin literatura arloan BBK-k eta Euskaltzaindiak elkarrekin egin duten lanen berri emateko. Lan horiek zerrendatu, deskribatu eta hainbat kasutan horien bertsio digitala ere eskaintzen da. Hiru atal ditu: a) Azken berriak, b) Literatura-terminoen hiztegia eta c) Sariketak.

Sariaren izena daramaten pertsonen datu bio-bibliografikoak Azkue bibliotekatik hartu dira, eta Aitor Aranak eta Rikardo Badiolak egindako lanean oinarriturik daude. Era berean haur eta gazteentzako literatura-sariak azaltzen dira: pertsona eta lan sarituak, noiz argitaratuak diren, etab. Lan berri hau ez da estatikoa, dinamikoa baizik.

A. Urrutiak galdetu du ea epaimahaikoen izenak ere sar litezkeen, fitxaren osagarri. Baietz erantzun zaio. J. L. Lizundiak, halaber, sari bereziak ere aipatzea eskatu du. Aurkezpenaren alde teknikoaz I. Kareaga arduratu da.

6. Euskararen Herri Hizkeren Atlas. Euskaltzainburuak EHHaren I. eta II. Liburukiei buruzko azalpena eman du. Gogoratu duenez, J. Haritschelharri iaz emandako erantzunean 2009.eko abendurako aterako zirela uste zen, baina azken orduko atzerapenak izan dira. Horregatik aurten plazaratuko dira, jada inprimaturik daude eta. Editatze lana nolakoa izan den argitu du, eta prozesu horretan, batetik, Xarles Videgainek eta Gotzon Aurrekoetxeak egindako lana eta, bestetik, Juanjo Zearreta zenak erakutsiriko interes eta laguntasun eskergarriak goraiatu ditu.

Ondoren, obraren lehen bi liburuak aurkezteko, liburuaren barne-ezaugarriak xehatu ditu A. Arejita egitasmoaren zuzendariak: inkesta-lekuak, lekukoaren zerrenda, erabiliriko alfabeto fonetiko eta letraldatzeko taula, erantzunen ezaugarriak, mapen antolaketa, biltzaileen datuak, etab. Era berean, mapa-aurkibidea nola egin den argitu du: galderaka, erantzunka eta lemaka ordenaturik.

I. Kareagak adibide batzuekin erakutsi du liburuaren erabilgarritasuna. Era berean, Xarles Videgainek, hitza harturik, guztiei eskerrak eman dizkie, euskaltzainek izandako pazientziagatik. Liburuaren formatoa txikitu dela azaldu du, horrela maneiorragoa izateko. Beronek ere hiru adibiderekkin erakutsi ditu obraren informazio-balioak.

J. L. Lizundiak, azkenik, bai Euskadiko Kutzaren aldetik eta bai Euskaltzaindiaren aldetik izandako atzerapenen arrazoi batzuk jakinarazi ditu: sarrera-hitzaldiak, erakunde-ospakizunak, lehenagotiko egutegi-programazioa, etab.

7. Kudeatzaile berriaz. Aurreko batzarrean jada esandakoari jarraikiz, A. Urrutiak Euskaltzaindiaren kudeatzaile berria hautatzeko gestioen berri azaldu ditu. Kargu horretarako eginiko iragarkiak prentsan publikatu ondoren, ia 100 eskari jaso dira. Horiei, Campo & Ochandiano enpresak bere artxiboetan, eskatzen ziren ezaugarriekin, zeuzkan beste dozena bat pertsona-fitxa erantsi dizkie. Horien artean galbaheketa eginez, hasierako kopurutik hamar bat pertsona bereiziko dituzte, horik gero kandidatu bakarra ateratzeko. Azken aukera hori egiteko, baina, zuzendari-tzaren, euskaltzain osoen eta langileen ordezkariekin hautatzeko taldea osatu beharko da.

J. L. Lizundiak esan du martxoaren osoko bilkuran hautestalde horren osakideen izenak erabaki beharko liratekeela, horiekin azken ebazpena egiteko. Gestio guztia maiatzaren 1erako amaitzea komeniko litzateke.

8. Esku artekoak

8.1. Euskarazko terminologia juridiko-administratiboari buruzko jardunaldia. Euskaltzainburuak jakinarazi duenez, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekiko lankidetasunean, datorren martxoaren 4an *Euskarazko terminologia juridiko-administratiboa* jardunaldia antolatuko dute Iruñean, *Euskarabidearen* egoitzan. Horren egitaraua ere banatu da.

8.2. Hiztegia Batua. Irizpideak, prozedurak eta tresnak jardunaldia egingo du Euskaltzaindiak martxoaren 23an, asteartean, egoitzan. Horren egitaraua eman du Euskaltzainburuak.

8.3. Mugarik gabeko telebistaren proiektua. Euskaltzainburuak azaldu duenez, Autonomia Erkidegoetako telebista-programak Estatu osoan ikusi ahal izateko kanpainaren alde sinadurak aurkezteko epea maiatzaren 15era arte luzatu da. Beraz sinatu nahi duenak oraindik horretarako astia dauka.

A. Iñigok gaineratu du guztion lana beharrezkoa izanen dela, eta, batzuek pentsatzen dutenaren kontra, hor, nafarren ahaleginak ez eze, gainerakoek ere premiazkoak izanen direla. J.L. Lizundiak ere ekimen horren garrantzia azpimarratu du.

8.4. Euskaltzainburuak jakinarazi du Euskaltzaindiak DEIArekin hitzarmena sinatu duela.

8.5. Auspoa argitaletxearen marka Euskaltzaindiari. Joakin Berasategi jaunak, orain arte Antonio Zavalarekin batera Auspoa argitaldariaren jabea izan denak, Euskaltzaindiari eskaini dio editorial horren markaren jabetza, berari dagokionean. Euskaltzaindiak eskaintza ontzat eman eta jasotze-agiria sinatu du, esker onez.

8.6. Euskalerria Irratiaren inguruko informazioa. A. Iñigok ekarriko informazioaren arabera, Nafarroako Epaitegi Gorenak, arrazoia eman dio Euskalerria Irratiari berorrek Nafarroako Gobernuaren kontra jarritako helegitean, emititzeko baimena ukatzeagatik. Epaia kopia banatu da.

8.7. Sarako liburu-azoka. Aurtengo apirilaren 5ean Sarako herrian Liburu Azoka izanen da. Hor Euskaltzaindiak 4 liburu berri aurkeztuko ditu, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzaz argitaratuak:

1. *Kantikak*, Gratien Adema «Zaldubi». Paratzailea: Henri Duhau. Bilduma: Euskaltzainak 10.
2. *Prediku zenbait. Hazparnen eginak (1854-1860)*. Gratien Adema «Zaldubi». Paratzailea: Henri Duhau. Bilduma: Euskaltzainak 12.
3. *Jesu Kristen imitazioea (1757)*. Itzultzailea: Martin Maister. Prestatzailea: Jean-Louis Davant. Bilduma: Euskaltzainak 13.
4. *Birjinia, edo donceil christaba*. Paratzailea: Jose Antonio Mujika. Bilduma: Euskararen lekukoak 24.

8.8. Hurrengo batzarrak. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra martxoaren 26an izango da Donostian, goizeko 10etan. Egun berean, arratsaldeko 6etan, Miren Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldia izanen da, Donostiako Udaletxean.

Besterik gabe, Euskaltzaindiaren batzarra 12,30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2010eko otsailaren 26an

Bilbon, egoitzan, 2010eko otsailaren 26an, eguerdiko 13:00ean, ohorezko euskaltzain izendatu berriei diplomak banatzeko ekitaldia burutu du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: A. Urrutia euskaltzainburua, X. Kintana idazkaria, J.L.Lizundia diruzaina, A. Sagarna Iker sailburua, A. Iñigo Jagon sailburua, J. Haritschelhar, S. Aleman, A. Arejita, M. Azkarate, J.L. Davant, P. Goenaga, E. Larre, M. L. Oñederra, Tx. Peillen, P. Salaberri, I. Sarasola, A. M. Toledo, J. M. Torreal-dai eta P. Uribarren. Ezin etorria adierazi dute: A. Arkotxa buruordeak, B. Oihartzabal, P. Salaburu, P. Zabaleta eta M. Zalbide euskaltzainek.

Ohorezko euskaltzainak: Pakita Arregi, Joxe Azurmendi, Gorka Aulestia, Luis Baraiazarra, Erramun Baxok, Martzel Etxehandy, Ana Maria Etxaide, Jose Angel Irigarai, Ezin etorria adierazi duenak: Joshua A. Fishman, Jose Mari Iriondo eta Xabier Lete.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Ricardo Badiola, Paula Casares, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Jabier Kartzakorta, Maria Pilar Lasarte, Abel Muniategi, Pello Telleria eta Manu Ruiz Urres-tarazu. Ezin etorria adierazi duena: Jean-Baptiste Coyos.

Batzordekideak eta teknikariak: Aritz Abaroa, Kasildo Alkorta, Gorka In-txaurbe eta Amaia Jauregizar.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza eta Amaia Okariz.

Mahaian, Zuzendaritzako hauek eseri dira: Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina, Iker Sailburua eta Jagon Sailburua.

Idazkariak ekitaldiari hasiera eman dio agiri hauek irakurriz: ohorezko euskaltzainak izendatu zirela dioen 2010eko urtarrilaren 29ko osoko batzarraren agiritala; Arautegian eta Barne Erregeletan ohorezko euskaltzainen izendapenaz esaten dena, eta diploman idatzita dagoen testua. Ondoren, ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du.

Gero, ohorezko euskaltzain bakoitzaren merezimendu nagusiak irakurri ditu eta banan-banan deitu ditu diploma jasotzera. Honela egin da diploma banatzea:

Pakita Arregiri, Euskaltzainburuak eman dio diploma.

Gorka Aulestiari, Idazkariak.

Joxe Azurmendiri, Euskaltzainburuak.

Luis Baraiazarrari, Idazkariak.

Erramun Baxoki, Jagon Sailburuak.

Martzel Etxehandyri, Euskaltzainburuak.

Ana Maria Etxaideri, Diruzainak.

Jose Angel Irigairi, Iker Sailburuak.

Ohorezko euskaltzainek, diploma jaso ondoren, esker oneko hitzak eskaini dizkiete bildu direnei.

Diploma jasotzera bertaratzetik izan ez duten Joshua A. Fishman, Jose Mari Iriondo eta Xabier Leteri ere helaraziko zaie diploma.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da ageriko bilkura, ordu bietan.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria